

SARRERA

Espainiako eta Euskadiko Bazterketa eta Garapen Sozialari buruzko FOESSA Txostena gaur egun bizi dugun ziurgabetasun-unearen narrazioa da, bai eta gure gizarte-kohesioari zuzendutako begirada bat ere, zenbait gauza aztertzeko: atzeraldi handiaren aurrean nola bizi garen eta nola erreakzionatzen dugun, irteera nola enfokatzen ari garen eta krisi ostean hark utzitako ondorioak nolakoak diren.

VIII. txosten hau 500 pertsonak baino gehiagok prestatu dute. Ikerketa-talde fidagarria da, txiroenen errealitatearekiko konpromisoa duena: 125 ikertzaile, 30 unibertsitatetakoak eta ekintza eta ikerketarako 13 erakundetakoak. Euskal Autonomia Erkidegoan, 350 pertsonatik gorako inkesta-talde profesional batek elkarrizketak egiten jardun du Euskadiko etxe eta biztanleriaren lagin esanguratsu bati, lurralde osoan zehar. Elkarrizketa horietan ordu eta erdi baino gehiago eman dute haien errealitatea ezagutzen eta haien eguneroko bizitzaren gorabeherak ikerketaren zerbitzura ipintzen, doan.

Orain aurkeztuko dugun Euskadiko FOESSA Txostena deskribatzailea da, eta bertako edukiak lotura estua du Espainiako Bazterketa eta Garapen Sozialari buruzko VIII. FOESSA Txostenarekin, bizi dugun ziurgabetasun-unearen narrazioa baita, erabakitzaile politikoaren eta gizarte osoaren zerbitzura egina.

ZER GERTATZEN ARI DA EUSKADIN?

Lehenengo ideia albiste ona da: Euskadik du Espainia osoan gizarte-integrazioarekin lotutako zifra handienetako bat: pertsonen **%85** dago egoera horretan. **Aukeren gizartea** deritzoguna da, eta espazio sozial horretan nahiko ondo ari dira funtzionatzen gizarteko parte-hartzearen palanka nagusiak. Enplegua sortzen duen lan-merkatu bat dugu, bai eta beren funtzioa betetzen duten gizarte-babeserako mekanismo publikoak eta zailtasunei aurre egiten laguntzen duten familiak ere.

Hala ere, nahiz eta egoera oro har ona izan, bazterketa soziala Euskadiko gizarte-egituraren parte da, Espainiako gainerako lurraldeetan bezala. Gaur egun, **334.000 pertsona** daude **bazterketa sozialeko** egoeran Euskadin, hau da, autonomia-erkidegoko biztanleriaren **%15,2**. Euskadik du Espainia osoan bazterketa sozialarekin lotutako zifra baxuenetako. Besteekin alderatuta, zifra baxuenak dituen laugarren autonomia-erkidegoa da, Errioxaren, Kantabriaren eta Asturiasen atzetik.

Espazio hori hartzen duten pertsonen **gizarte geldia** deritzoguna osatzen dute: pertsona-talde horrentzat gizarte-mugikortasunaren igogailuak ez du funtzionatzen, eta ezin da lehen solairura ere igo. Multzo horren barruan beste talde bat dago, ahultasun-egoera berezian dauden pertsonena, eguneroko bizitzaren arazoak pilotzearen ondorioz ezin baitute bizitza-proiektu egituratu bat izan. Horiek dira bazterketa-egoera larrienean dauden pertsonak, **eta gaur egun 194.000 dira, Euskadiko gizartearen %8,8**. Desparekotasunaren eta prekaritatearen eraginik latzenak jasaten dituztenak, pertsona eta familiak dira. Honako hauek dira egoeraren ezaugarrietako batzuk: etxebizitza ez-seguru eta desegokia, langabezia iraunkorra, muturreko lan-prekarietatea, osasunaren narriadura, eta lagunduak izateko aukera murrizak.

Bigarren ideiarekin arabera, argazki horrek elementu kezkarri batzuk jartzen ditu agerian etorkizunari begira, eta horiek kontuan hartu behar ditugu. Batez ere bi azpimarratu nahi ditugu:

Alde batetik, ezagutu dugun berrikuntzetako bat da integratutako gizartearen barruko oinarriak apurtzen ari direla. Integrazioaren espazioaren barruan **360.000** pertsona inguruko talde bat dago, eta, haien erresistentzia-koltxoia ahula denez, segurtasun-

gabeziako egoeran daude. Horiek izango dira ekonomiaren dezelerazio-prozesuaren sintomak nabaritzen lehenak. Pertsona- eta familia-talde hori Espainiakoa baino handiagoa da proportzioan. Talde horretan daudenak biztanleriaren %16,4 dira, eta gora egin dute azken bost urteotan. Beraz, hasieran aipatu dugun egoera on horren irudiak ñabardurak ditu, susperraldi prozesuari dagokionez; izan ere, prozesuaren ezaugarrietako bat prekarietatea izan da.

Bestalde, Euskadiko bazterketa larrienaren espazioari arreta handiagoz erreparatzen badiogu, Espainia osoan gertatzen ari den fenomeno bat ikus dezakegu. Etxebizitza baztertuenetan zailtasun handiak ari dira pilatzen: bazterketa muturrekoena da. **90.000 pertsona inguruko** taldea da, eta zailtasun ugari ari dira metatzen. **Kanporatutako gizartea** deritzo talde horri. Haien kezka bakarra egunetik egunera bizirik irautea da, eta, ziur asko, ez dute babes-mekanismorik jasotzen; eta, jasotzen badituzte, ez dira nahikoak. Susperraldi ekonomikoaren prozesuan zehar Euskadiko gizartearen bazterketa gogorrena jasan duten herritarrek osatzen dute taldea. Gero eta larriagoa den egoera hori erronka bat da arretarako sistema publikoentzat eta gizarte-erakundeentzat.

Euskadik **aldeko egoera bizi izan zuen susperraldian zehar, eta integrazio-mailak gora egin zuen, baina prekarizaziorako joerarekin**. Hala ere, horrekin batera **bazterketa larrienak** gora egin zuen, Euskadiko gizartearen sektore ahulenean zailtasunak pilatuta.

Hirugarren ideiak desparekotasun-egoerari egiten dio erreferentzia, hau da, herritarron arteko distantziari. Euskadiko errenta-desparekotasunak hainbat ezaugarri berezi ditu. Alde batetik, errenta-desparekotasunaren tasak murriztak dira, eta aldi berean Euskadiko pertsona txiroenek errenta gehiago galtzen dute Espainiako gainerako lurraldeetan baino. Hala ere, desparekotasuna ez da soilik ikusten herritarren aberastasun ekonomikoan oinarrituta. Eguneroko bizitzan badaude funtsezkoak diren beste dimentsio batzuk: etxebizitza, osasuna, hezkuntza, familiek arazoei aurre egiteko duten gaitasuna, etab. Dimentsio horiek guztiak aintzat hartzen baditugu, argazkia bestelakoa da guztiz.

Euskadi Espainiako autonomia-erkidego desparekoenen artean egongo litzateke. Dimentsio anitzeko desparekotasun hori –gure txostenetan lehen aldiz eman dugu datu hori– elementu kezkagarria da Euskadin, eta kontuan hartu beharko genuke. Zer esanahi du? Alde batetik, bazterketa sozialeko egoeran dauden biztanleak gero eta urrunago daudela erkidegoko gainerako biztanleengandik, eta gero eta gauza gutxiago dituztela komunean gizartearekin. Bestetik, etxebizitzetan gero eta zailtasun gehiago ari direla pilatzen. Horrek are garrantzi handiagoa ematen dio aurrean dugun etorkizuneko erronkari.

Laugarren ideari dagokionez, arrisku sozialen hiru bloke nagusiak identifikatu ditugu aro berri honetan, eta lehen baino gehiago eragiten diote Euskadiri.

Lehenengo blokea etxebizitzari dagokiona da, desperekotasunaren oinarritzko motorra izateaz gain faktore erabakigarria delako bazterketa sozialaren dinamiketan. Familia askorentzat, etxebizitza duina izateko eskubidea eskuraezina bihurtu da, eta etxebizitza ez-seguru eta desegokietan bizi dira. Horrek eragin nabarmena du haien baliabide ekonomikoetan, osasun-egoeran eta gazteenen bizitza-proiektuetan.

Euskadin etxebizitza lehen postuan dago, gizartean arazoak sortzen dituzten elementuen artean. Dimentsio horrek biztanleriaren **%22,2ri** eragiten dio.

Honako hauek dira adierazle esanguratsuenak:

- 50.000 etxebizitza daude osasungaitzasun-egoeran.
- 233.000 pertsona daude gehiegizko etxebizitza-gastuak dituzten etxeetan; batzuek zorrak dituzte horniduretan, alokairuan edo hipotekan, eta beste batzuk, zorrak ordaindu ostean, pobrezia larrienaren atalasearen azpitik gelditzen dira. 2013an baino 3 aldiz gehiago.
- 25.000 etxebizitzatan jendea pilatuta bizi da.

Zehatzago, etxebizitza-bazterketaren bi egoeratan ipini nahi dugu arreta; izan ere, Europako erakundeek definitu egin dituzte etxebizitza-bazterketaren arloan, eta horiei begira ez dago neurketa publikorik:

1. Lehena etxebizitza ez-seguruen egoera da. Egoera horretan bizi den pertsona bati galdetuko bagenio zer den etxebizitza ez-seguru batean bizitzea, hau erantzungo liguke: *“Ez dakit zer gertatuko den, agian hurrengo hilean kalean geldituko naiz”* (aldi batean alokatze-kontraturik gabe bizitzea, indarkeriaren mehatxupearan bizitzea edo etxegabetze-jakinazpenak jasotzea...). Euskadin 31.100 etxebizitza inguru daude egoera horretan (%3,4), eta, gutxi gorabehera, 77.000 pertsona.
2. Bigarren arreta-fokua etxebizitza desegokietan jarriko dugu. Halaber, egoera horretan dagoen norbaiti galdetuko bagenio zer den etxebizitza desegoki batean bizitzea, hau esango liguke: *“Etxeak ez ditu betetzen bertan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak. Etxez aldatu nahiko genuke, baina ezin dugu (bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituen espazio batean bizitzea, jendea pilatuta, hornidurak eskuratzeko modurik gabe...)*. Kalkuluen arabera, Euskadin 54.600 etxe daude (%6,1) egoera horretan, eta 220.000 pertsona bizi dira horietan.

Arriskuen **bigarren blokea osasuna**ri dagokiona da. Euskadik bi ezaugarri bereizgarri ditu osasunaren alorrean. Batetik, osasunarekin erlazionatutako arazoen prebalentzia Espainian baino handiagoa da; eta bestetik, osasunaren alorrak garrantzi handiagoa du bazterketa sozialean, enpleguak baino. Horrez gain, bazterketa-egoera larrienean, hori da dimentsiorik garrantzitsuen.

Ikerketa askok agerian utzi dute lotura hertsia dagoela osasun-arazoen eta bazterketa sozialaren artean. **Bazterketa sozialeko egoeran dagoen euskal biztanleriaren %55,5ek pairatzen du osasunaren alorrean kontuan hartzen den adierazleren bat.** Horrek esan nahi du hazkundera ia %30ekoa izan dela. Bost urtean, erabakigarria izan da zahartze-indize handiagoaren eta mendekotasun-tasa handiagoaren arteko konbinazioa.

Hona hemen zenbait datu:

- 69.000 familiatan, utzi egin diote sendagaiak erosteari nahiz tratamenduak edo dietak jarraitzeari, arazo ekonomikoengatik.
- 62.000 familiatan, heldu guztiek dituzte desgaitasunak, gaixotasun kronikoak edo beren eguneroko bizitzako jardueretarako mugak ezartzen dizkieten osasun-arazo larriak.
- 26.000 familiatan dago mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren bat, eguneroko jarduerak egiteko hirugarren baten laguntza edo zaintza behar izanda ere arreta hori jasotzen ez duena.
- Euskadiko biztanleek pairatzen duten bazterketa sozialaren intzidentzia-tasa %15,2koa da, baina kideren bat mendekotasun-egoeran duten etxeetan %34,1era iristen da (Espainian baino ehuneko txikiagoa, dena den), eta desgaitasuna duen kideren bat duten etxeetan %27,6ra. Azken horri dagokionez, Euskadiko tasa altuagoa da estatukoa baino.

Etxeko laguntza-zerbitzu publikoek Espainiakoek baino erabiltzaile gutxiago artatzen dituzte; izan ere, Euskadin gehiago jotzen da merkatu pribatura beharrian horiek asetzeko. Gainera, eguneroko jarduerak egiteko muga larriak dituztelako laguntza behar izanik ere inolako arretarik jasotzen ez duten pertsonen ehunekoa altuagoa da Euskadin Espainian baino.

Hirugarren arrisku-blokea enpleguari dagokio, gizarteratze-faktore gisa. Biztanleriaren %14,5i eragiten dio.

Lan-merkatuan hauteman daitekeen desparekotasuna diskurtso jakin bat inposatzen ari da; haren arabera, azken arrakastaren gakoa da pentsatzea enplegua pribilegio bat dela eta ez eskubide bat. Lan-arloko prekarietatea gure gizarteko egiturazko bizimodu bihurtu da. Hona hemen **Euskadin laneratzeko gaitasuna galtzeari buruzko** datu batzuk:

- Lan egiten duten pertsonen %11,4 gizartetik baztertuta dago Euskadin. Pertsona horiek guztiak baztertuta daude, esfortzu handia egiten duten arren, beren seme-alabengatik goizero borroka egitera ateratzen diren arren, ekintzaileagoak izan behar dutela entzun behar izaten duten arren.
- Hain zuzen, bazterketa sozialeko egoeran dauden sostengatzaile nagusien %48 lanean ari da. Bazterketa soziala eta lana izatea gero eta bateragarriagoak dira.
- Euskadin, herritarren %63k uste du enplegurako zerbitzu publikoen funtzionamendua egokia dela. Datu horiek Espainiako datu orokorrak baino hobekiak dira, baina, dena den, okerrago egin dira azken bost urteotan.

Arriskuen bloke nagusi horiez gain, **Euskadiko bazterketaren banaketak** bazterketa-egoeran dauden familien eta sostengatzaile nagusien profil soziodemografikoak ere erakusten dizkigu:

- Bazterketa sozialeko egoeran dauden sostengatzaile nagusien artean, gehiago dira emakumeak.
- Egoera horretan dauden sostengatzaile gehienek 45 eta 64 urte bitartean dituzte.
- Horien %48 lanean ari da. Lan egiteak ez du bermatzen parte hartzeko edo bizirauteko aukera izatea.
- Bazterketa-egoeran dauden euskal familiak sostengatzen dituzten 10 pertsonatik 9k Espainiako nazionalitatea dute. Bazterketa sozial horren erdia 100.000 biztanletik gorako hiriguneetan dago.

Banaketa hori gorabehera, baldintza hauek betetzen dituzten familiek dute **bazterketa-arriskurik** handiena: familiaren sostengatzaile nagusiak 30 urte baino gutxiago izatea, edo EBtik kanpoko immigrantea izatea. Gauza bera gertatzen da familia ugariekin eta guraso bakarreko familiekin, bereziki 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan bizi badira.

Esan bezala, Euskadin aukera gehiago dago bazterketa sozialeko egoeran egoteko, atzerriko nazionalitatea izanda. Gaur egun, hainbat pertsona bizi dira Espainian eta Euskadin beldurrak jota, estatusaren beharrezko edo galera nagusitu den gizarte honetan. Beldur hori aprobetxatu egiten da, joko arduragabe bat eginez, politikaren eta hedabideen bitartez, arazorik ez zegoen tokian tentsioak eta arazoak sortzeko. Adibidez, xenofobia sortzeko. Iritzi-inkestek ez dute jasotzen immigrazioa arazotzat jotzen denik; zehazki, biztanleen %4

inguruk bakarrik uste du herrialde honetako arazo nagusia dela. Espainia da iritzi xenofoboak argi eta garbi adierazteko joerarik txikiena duten herrialdeetako bat, eta errefus-fenomeno gutxien dituen herrialdeen artean ere badago. Bazterketa sozialeko egoeran dauden 10 pertsonatik bat bakarrik da EBtik kanpoko immigrantea Euskadin. Garrantzitsua eta premiazkoa da solasaldi zibikoak izatea migrazioarekiko beldurra sentitzen dutenekin, horrela, sentiarazten dituzten arrazoiak hobeto ulertu eta abegi onaren esanahia azaltzeko.

DEMOKRAZIA, PARTE HARTZE SOZIALA ETA POLITIKA PUBLIKOAK

FOESSA Fundazioaren VII. Txosten honetan ikus daiteke **gure demokraziak kalitatea galdu duela**. Gure demokrazia eduki etikorik gabe eta birbanatzearekin lotutako edukirik gabe geratzeko arriskua dugu, formak azpimarratu eta itxurak egiteko espediente politiko soil bihurtuta.

Gure demokraziak tradizio kultural txikia du, eta, gainera, oinarrian parte-hartze zibiko-politiko txikia duen konpromiso politiko baten gainean eraikita dago. Euskadin, hamar pertsonatik bati baino ez zaio interesatzen bazterketa soziala.

Parte-hartze falta dagoen arren, **biztanleek Ongizatearen Estatua babesten jarraitzen dute gizarte-babeserako mekanismo gisa**. Euskal biztanle gehienek — %75,3— uste dute gaur egun baino diru publiko gehiago bideratu behar dela **Gizarte Zerbitzuetara**.

Horren antzera, biztanleen %75,6k zerga gehiago ordaintzearen eta prestazio eta gizarte-zerbitzu gehiago eskaintzearen alde egingo luke, eta %24,4k, aldiz, zerga gutxiago ordaintzearen eta prestazio gutxiago edukitzearen alde. Estatuko datuekin alderatuz, Euskadin joera txikiagoa dago **Gizarte Zerbitzuetan gastu publiko handiagoa egiteko**, baita gastu hori finantzatu ahal izateko presio fiskala handitzeko ere. Beharbada, hori lotuta egongo da arestian aipatutako zerbaitekin: **gizarte-babeseko gastu handiagoarekin**. Badirudi, ordea, **Gizarte Zerbitzuen sistema zabal eta normalizatu horren kontrako aldean beste hau dagoela: Euskadiko herritarrek, babes-eredu ez hain garatuak dituzten beste autonomia-erkidego batzuetako biztanleen aldean,**

erresistentzia handiagoa izatea horretara bideratutako gastu publikoa handitzeko.

Herritarren artean, gehiengoak iritzi ona du Gizarte Zerbitzu Publikoen gainean, baita bazterketa sozialeko egoeran dauden herritarren artean ere. Alabaina, bazterketa-egoeran dauden pertsonak iritzi negatiboa dute azken bost urteotako bilakaerari buruz.

Etorkizunari aurre egin ahal izateko, beldurra galtzeko eta gure gizartean herritarren inklusiorako mekanismoak indartzeko, **solasaldi zibiko** handien sorta bat proposatzen dugu, gure bizikidetzaren modua behin betiko egokitu dezagun, txostenean gizarte deslotua deitu den gizarte-mutazioko prozesu horren aurrean. Guk bi azpimarratuko ditugu:

Lehenengoa, **partekatutako ardurak dituen agertoki berri bat** sortu beharra planteatzea. Ezinbestekoa da sektore publiko bat sortzeari buruz hitz egitea: hor, administrazio publikoek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta enpresa sozialek herritarren ekimenekin nahiz ekimen profesionalekin batera jarduteko lan-espazio bateratu bat eratuko lukete.

Akordioak egiten jakitea —eta egin ahal izatea— da erronka, eta, horretarako, une hauetan funtsezko tresna dirudi gizarte-ehun bat sortzea, gai izango dena gure bizitza benetan soziala izateko askotariko alderdiak elkarrekin pentsatzeko.

Nola lor dezakegu indibidualismoa sustatzen duen mundu honetan murgilduta daudenek hirugarrenen sarbidea errazteko komunitate bihurtzea erabakitzea (edo onartzea)? Nola susta dezakegu herritarren lankidetzaren?

Laburbilduz, hau esan daiteke: 2013an planteatu genuen bizitza soziala pribatizatzen ari zela, eta bost urte geroago uste dugu **“gizarte deslotu batean bizi garela, zeinetan gero eta zailagoa den atzean geratzen direnen gaineko ardura hartzea; horrexegatik, berriz lotu behar dugu, eta horretarako, ezinbestekoa izango da komunitatea eraikitzea”**.